

HERRITARREN PARTAIDETZARAKO ERAKUNDE ARTEKO ESPAZIOA

2025eko apirila

ERAKUNDE ARTEKO ESPAZIOTIK


2025eko Herritarren Partaidetzarako Erakunde Arteko Espazioaren lehenengo lau hilekoan 2023-2027 planifikazio estrategikoa oinarrian hartuz, **2025erako jarduera-plana onartu da.**

Era berean, **Plenaria**o lidergo partekatuaren inguruan sakotzeko baliatu dugu. **Jon Fernandez ORBEA**ko zuzendari oihia izan da gure artean, “**El liderazgo compartido; un paseo por zonas grises**” hitzaldiarekin.



- Bilgune Teknikoko akta [hemen](#) dago eskura.
- Plenarioko akta [hemen](#) dago eskura.

2025eko jarduera-plana



Honela, 2025eko jarduera-plana onartuta, hurrengoak dira **nabarmendu nahi diren hitzorduak**:

**Hurrengo egun eta asteetan bidaliko dira banakako deialdiak.*

Herri Txikien lantaldea*



Eguna: Maiatzak 20, asteartea

Ordua: 17:00-19:00

Lekua: Gunea (Gipuzkoa plaza, 1. Donostia)

Norentzat: herri txikietako udaletako ordezkari politiko eta teknikarientzat

Hurrengo bilerarako langaia: atzeritar jatorriko pertsonen harrera komunitarioa

Izen-ematea: partaidetzaespazioa@gipuzkoa.eus

Partaidetzazko aurrekontuak*



Eguna: Maiatzak 21, asteazkena

Ordua: 10:00-13:00

Lekua: Kirol Etxea (Anoeta, 5. Donostia)

Norentzat: udaletako ordezkari politiko eta teknikarientzat

Partaidetzazko aurrekontu-prozesuak aberastu eta hobetzeko gakoetan arakatzea proposatuko da, horretarako, gaian aditua eta aritua den **Maitane Barrenetxea**, Pasaiaiko partaidetza-teknikaria gonbidatuko da.

Izen-ematea: partaidetzaespazioa@gipuzkoa.eus

Herritarren Partaidetzaren eta Ekintza Komunitarioaren marko legala. Aukerak eta zalantzak*



Eguna: Maiatzak 30, ostirala

Ordua: 10:00-13:00

Lekua: Gunea (Gipuzkoa plaza, 1. Donostia)

Norentzat: udaletako ordezkari politiko eta teknikarientzat eta batez ere, arlo juridikoko arduradunentzat

Fernando Pindado izango da saio hau gidatuko duena; bera abokatua da, unibertsitateko irakaslea eta Kataluniako erakunde publiko ezberdinetan partaidetzako arduradun izan da.

Herritarren Partaidetza eta Ekintza Komunitarioaren araudi markoa ezagutu eta udal arautegiak ematen dituen aukerez gogoeta egin asmo da; ere berean, aurrerantzean alor juridikoari dagokionez, elkarrekin sakondu beharreko gaiak identifikatzeko baliatu nahi da.

Lidergo partekatua, ordezkari politikoen begiradatik*



Eguna: Ekainak 11, asteazkena

Ordua: 10:00-13:00

Lekua: Santa Teresa eraikina (Elbiria Zipitria kalea, 1. Donostia)

Norentzat: udaletako ordezkari politikoez

Lidergo politikoaz gogoeta, norbere rol eta arduratik: elkarrizketaren artea.

Gogoeta espazio iraunkorraren baitan, lehendabiziko saioa izango da, **Jose Luis Escorihuela "Uli"**k, Fabrikako I+D-ko zuzendariak, gidatuta.

Izen-ematea: partaidetzaespazioa@gipuzkoa.eus

Teknikari berriei harrera

Azken hilabeteetan lurraldean partaidetza alorreko teknikari berriak izendatu dira: Hernani, Hondarribia eta Pasaia Udaletan. Ongi etorri guztioi!

Teknikari berriei harrera egiteko, iaz, Erakunde Arteko Espazion landutako teknikari berriei harrera egiteko bide-orria eta [oinarrizko materialen karpeta](#) erabili da.



TREBAKUNTZAK

Ekintza Komunitarioaren metodologian sakontzeko ikastaro trinkoa izan da

2025eko urtarileko ostiraletan 55 lagun inguru elkartu dira Gobernu Ona eta Herriarren Partaidetzarako zerbitzutik antolatutako eta Institut de Govern i Politiques Publiques (IGOP) - Universitat Autònoma de Barcelona (UAB)-ko Ernesto Morales eta Oscar Rebollok emandako ikastaro trinkoan.

Balorazioa oso positiboa izan da eta ikastaroa errepikatzeko aukera aztertzen ari dira.



BALIABIDEAK

Ekintza komunitarioa: gida metodologikoa


Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ekintza Komunitarioa markotik eratortzen da gida metodologiko hau, zeinak helburu dituen: marko kontzeptual eta metodologikoan proposatzen diren lan estrategiak praktikan zer adierazten duten azaltzea; prozesu komunitarioen izaera erlazionala ulertzea; funtsezko galderak egitea; hainbat tresna erraz eta erabilgarri ezagutzera ematea; eta lanerako hainbat agertoki islatzea.

Dokumentua [hemen](#) dago eskuragarri.



Herritarren Partaidetzarako eta Ekintza Komunitarioarako lidergo partekatuak

2024ean azaroaren 21ean ospatutako lidergo partekatuen inguruko jardunaldiko hitzaldi eta mahai inguruetak hitzartzeak dagoeneko eskuragarri daude [web-orrian](#).



Begoña Románek *Liderazgo compartido: reflexiones desde la ética* bere hitzartzeari lotuta beheko artikulua idatzi du, non, lidergo partekatuan eskuordetza arduratsua giltzarri dela azpimarratzen duen, toki-administrazioek, herritarren hurbileneko erakundeak izanik, harreman topaketa inprobableak sortu behar dituztela mahai gaineratzearekin batera.

Artikulua **euskaraz irakurtzeko klikatu [hemen](#)**; gaztelaniaz irakurri nahi izanez gero, klikatu [hemen](#).

Partaidetza-esperientzien mapa eguneratuta

2023ko eta 2024ko partaidetza-esperientziak argitaratu dira.

2021 urteaz geroztik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren [Partaidetzako web atalean](#) partaidetza esperientziak argitaratzen dira: zehazki, Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako partaidetza-prozesuak dira sistematizatutakoak.

Eta bi formatutan dauden eskura:

- Alde batetik, eta urtero egin ohi den moduan, partaidetza-esperientziak biltzen dituen formatu digitaleko [liburuxkan](#).
- Eta bestetik, [partaidetza-esperientzien geo-mapan](#), non, filtro bidezko bilaketak ahalbidetzen diren.

Ez egin zalantzarik, eta murgildu Gipuzkoako partaidetza-esperientzien mapan!

